

Liverpoolgo Unibertsitateari eman diote Irujoren erbesteko liburutegia

Kongresu batekin eta katedra batekin omenduko dute EAJko abokatu, politikari eta ministro izan zena

JUAN LUIS ZABALA. DONOSTIA

Manuel Irujo EAJko abokatu, politikari eta Espainiako II. Errepublikako ministro zenak (Lizarra, Nafarroa, 1891-Bilbo, 1981) Paris eta Londresko erbestealdian zeuzkan liburuen artxiboa —400 alek osatutakoa— dohaintzan eman diote haren oinordekoek Liverpoolgo Unibertsitateari (Ingalaterra). Horrez gain, Manuel Irujoren omenezko bi saio atondu ditu Etxepare Euskal Institutuak: batetik, Manuel Irujo Lecture Kongresua, azaroaren 27an, Liverpooleko Unibertsitatean; bestetik, unibertsitate bereko Manuel Irujo Fellowship Katedra, urtero, 2014-2015eko ikasturtetik aurrera, euskal erbestealdiari buruzko ikerketak eta irakaskuntza bultzatzeko.

Liverpoolen azaroaren 27an egingo den Manuel Irujo Lecture Kongresuan, Irujoren hainbat senitartekok, Chris Harris Liverpooleko Unibertsitateko Kultura, Hizkuntzak eta Ikerketak Departamentuko buruak, Mari Jose Olaziregi Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustapen eta Hedapenerako zuzendariak eta Ludger Mees eta Iban Zaldia EHUko irakasle eta idazleek hartuko dute parte; Xabier Irujo ere mintzatuko da, Renotik (Nevada, AEB), Renoko Unibertsitateko Center for Basque Studiesekin egingo den zuzeneko konexio baten bitartez. Xabier Irujo Ametzaga izango da, hain zuzen ere, Liverpoolgo Unibertsitateko Manuel Irujo Fellowship Katedraren lehen irakasle gonbidatua, datorren ikasturtean.

Horiek guztiak Etxepare Euskal Institutuaren eta Liverpoolgo Unibertsitatearen arteko elkarkidetzaren ondorio zuzenak dira. Duela bi urte hasi zen Etxepare Euskal Institutua euskal ikasketak eskaintzen Liverpoolgo Unibertsitatean, eta irakasle lanpostu finko bat sortu du dagoeneko, Chris Harrisek eta Mari Jose Olaziregik atzo Irujoren liburutegiaren dohaintzaren berri eman eta haren omenezko saioak iragartzeko egindako agerraldian adierazi zuten.

Manuel Irujoren oinordekoek katalogatu zuten haren erbesteko liburutegia, eta Josu Chueca eta Paul Preston historialariek kontsultatu ostean hartu zuten Liverpoolgo Unibertsitatearen esku uzteko erabakia, «Mari Jose Olaziregiren inspirazioaren eta energiaren bultzadarekin», Miren Button Irujok atzo azaldu zuenez. Aurkezpenean senarra izan zuen ondoan Miren Button Irujok, Richard Chandler, liburutegiaren katalogazio lanetan aritutakoa. Nahiz eta euskarari «oso hizkuntza zaila» irizten dion, euskaraz mintzatu zen Chandler bere txandan.

«Gerraren humanizazioaz»

«Gerraren humanizazioaz hitz egiten da Irujo jaunaz hitz egiten denean, duintasunaz, zuzentasunaz eta ohoreaz», azaldu zuen Olaziregik. «Manuel Irujoren irudia eta bere eginak euskal imajinario kolektiboaren zati direla esango nuke. Euskal literaturan ere bere itzala du. Aingeru Epaltzak bikain adierazi zuen irujotarrek eta epaltzatarrek, besteak beste, jasandako erbestealdiaren drama Tigre ehizan idatzi zuenean, 1997an Euskadi saria irabazi zuen eleberria. Aurtengo Euskadi sariaren irabazleak ere, Ramon Saizarbitoriak, Bihotz bi eleberriko leit-motiv-etako bat bihurtu zuen Carrasco ez zuten hil behar baieztapena, Irujoren irudiari omenaldi eginez». Aingeru Epaltzak ere parte hartu zuen aurkezpenean, Manuel Irujoren senitarteko gisa, haren amona Manuel Irujoren lehengusua izan baitzen. Ahaidetasun horrek urruna eman badezake ere, bera haur zelarik «oso etxekoa» zutela esan zuen Epaltzak, eta Tio Manuel deitzen ziotela. «Erbestetik itzuli zenean, 1977an, lehendik ere berez estua zen harremana are estuagoa bilakatu zen».

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia sailburuak Saizarbitoriaren Bihotz bi-ko Carrasco ez zuten hil behar esaldiaren jatorri den pasadizoa ekarri zuen gogora, beste batzuen artean, aurkezpenean. Leon Carrasco koronela, Francisco Francoren aldeko militarren nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan zuten atxilotua. Hara zihoala, Manuel Irujok ikusi zuen miliziano batzuek Carrasco handik kanpora zeramatela. «Presondegitik kalera zeramatena —garai hartan maiz egin ohi zenez— tiroz hil eta gorpua bide ertzean uzteko. Irujok, orduan, gogor ekin zien milizianoei, eta Carrasco espetxetik ateratzeko agindua zeinek eman zuen galdetu zien. Erantzunik jaso ez zuenez, Carrasco besotik hartu eta Diputazioaren jauregira itzuli zuen berriro». Eztabaida gogor bat eragin zuen Irujok Carrascoren defentsan erakutsitako erreakzio hark, eta egindakoagatik pistola batekin mehatxatu ere egin zuten, berak kontatu zuenez.

Irujok heriotza zigorraren aurka beti erakutsi zuen jarrera irmoa eta jokabide ausarta laudatu zituen, beste dohain askoren artean, Erkorekak, aurkezpenean izan zuen parte hartzean. Erreferentzia eta eredu nagusien artean du, izan ere, Josu Erkorekak Manuel Irujo.